

# Alfa eta omega

ZIENTZIAREN GARRANTZIA PANDEMIAN



**LEIRE ARANA** IKASTOLAKO IRAKASLEA

ETA MATEMATIKAN.EUS-EN EGILEA

ARGAZKIA: F. ALAIE, M. SANCHEZ, C. EVANS

Nire azken ekarpena urtarrilean izan zela konprobatu ahal izan dut hau idazten hasi naizenean; PUNTUAren urteurrena zen garai hartan. Handik hona, galtzerdiari buelta ematean nola, hala egin digu bizitzak gu denoi mundu (ia) osoan.

Oso gogoan dut birus berri bat behatzen ari zirela banekiela garai hartan. Izan ere, Gabon inguruan jakin nuen OME adi jarria zela Txinari begira; pneumonia arraroa sortzen omen zuen birus misterioitsuari begira.

Zenbait zientzia aldizkariren harpideduna naiz eta bertan jasotzen ditut horrelako berriak. Eta, zer esango dizuet, ba: OME kezkatzen dela ikusten dudanean, ni neu ere ikaratu egiten naiz!

Handik hona, inon direnekoak pasatu dira.



Birusaren presentzia kokatzeko mapa.

Hasieran, atentzioa emango zigun gaiak, baina gero, ahaztu eta gure bizitzetan zentratuko ginen. Euskaldunok, zehazki, Zaldibarrera begira geunden kezka, penaz eta amorruez. Wuhan-etik zetozkigun irudiek harridura piztuko ziguten, baina erregimen komunistaren zorrotzasunaren paisaian kokatuko genituen. Hedatzen ari zela ere entzungo genuen, baina gripe ximplea omen zela-eta garrantzia kenduko genion. Adinekoei eta alde zaureratik gaixorik zeudenei eragiten ziela jakingo genuen, baina inor gutxik jarriko genion gure aitona-amonen aurpegirik gaixotasunari.

## Absolutu guztiak dantzan

Momentu batetik aurrera dena azeleratu-edo egin zen eta, harrezkero, sekula ikusiko ez genituela pentsatzen genituenak banan-banan gauzatu direla bizi behar izan dugu.



Segurtasun distantzia, irudi batean.

Geldiezinak zirenak gelditu egin behar izan dira. Aipatu ere egin ezin zirenak irmo erabaki eta gauzatu behar izan dira. Ustez zentroan beharko luketen lanbide eta zaintzarako figurek zentroa ez ezik espazio osoa ere hartu dute. Absolutuak ziruditen denak erlatibo egin dira. Gaitza bizkortu eta mundua moteldu. David nano batek Goliat erraldoia seko geratu du.

Goliat geldi egoteak ekarri du berarekin Himalaiako mendi puntak ikusi ahal izatea, izurdeek Venezian igeri egitea, gure etxekoekin dauzkagun sakoneko loturak berriz aurkitzea eta bizitzaren zenbait aspektu eta ohitura birdefinitu daitezkeela konturatzea.

Goliat geldi egoteak ekarri du, baita ere, ziurgabetasuna eta hurrengo egunerako janaria lortzeko kezka hainbat etxetara. Edo zurekin bizi den munstroarekin etxean itxita egon behararen terrorea. Baita bizitza honetatik alde egiteko momentua hainbatek bakarrik egin beharra ere.

Alfa eta omega aldi berean, gizaldi guztietan bezala.

## Ulertzeko beharra

Zientzia. Medikuntza.

Matematika. Politika. Hizpide izan ditugu denak. Ro, bakuna,